



MEDIKUNTZA
ETA ERIZAINNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD DE
MEDICINA
Y ENFERMERÍA

GRADUKO UNIBERTSITATE IKASKETETAN IRAKASGAIAK AITORTZEA ETA KREDITUAK TRANSFERITZEA (BALIOZKOTZEAK) 2026/2027 IKASTURTEA

Graduko Ikasketetan Kredituak Transferitzeko eta Aitortzeko Arautegia 2012ko maiatzaren 16an onartu zuen EHUKo Gobernu Kontseiluak, eta 2012ko ekainaren 19an argitaratu zen EHAAn. Kredituak aitortzeko prozedura arautzen du arautegiak, honako hau xedatzen duelarik 3. artikuluan: "Kredituak aitortzea ikasle batek ikasketa ofizialetan (amaituak edo amaitu gabeak) eskuratutako kredituak onartzea da. Ikasketa horiek uneko ikasketen bestelakoak izango dira, eta UPV/EHUn edo beste unibertsitate batean (Estatukoa edo atzerrikoa) eginak. Aitortutako kredituak UPV/EHUn matrikulatutako titulu ofiziala lortzeko egindako kreditutzat hartuko dira".

Beste ikasketa batzuetan lortutako kredituen aitortpenari dagokienez, arautegiak dio 2.3 artikuluan ezen *"Ikastegietako akademia batzordeei dagokienez, batzorde bakoitzak bere ikastegian ikasketak baliozkotzeko aurkeztutako eskaerak ebatziko ditu, aldez aurretik zerikusia duten sailen txostena jasota. Sailek txostenak egiteko sistema egokia arautuko dute, araudian ezarritako baldintzak eta epeak aintzat hartuta"*

BALIOZKOTZE-ESKAERA 2025-2026 IKASTURTEA

Eskatutako dokumentazioa:

-Eskabidea Fakultatearen webgunean dagoen **aplikazio informatikoaren bidez baino ez da egingo** (Idazkaritza- Tramiteak-Baliozkotzeak). Aplikaziotik kanpo egindako eskaerak ez dira onartuko.

-**Epea**: 2026ko irailaren 7tik 11ra. Epez kanpo edo dokumentazioa osatu gabe aurkezten diren eskabideak ez dira onartuko.

-**Lekua**: <https://www.ehu.eus/eu/web/medikuntza-erizaintza-fakultatea/idakaritza-tramiteak/baliozkotzeak>

-**Eskatutako dokumentazioa**:

- A) Egindako irakasgaien programa ofizialak, bertan jasota gaitasunak, eduki teoriko eta praktikoak, eta eduki horien ECTS kredituen banaketa. Ahal dela, PDF formatuko dokumentu bat aurkeztea komeni da, jatorriko unibertsitatearen webgunetik irakasgaiaren programa deskargatuta (esteka erantsi). Halakorik ezean, jatorriko unibertsitatearen zigilu ofiziala duen PDF dokumentu bat erantsi behar da.



- B) Ziurtagiri akademiko pertsonala, jatorrizkoa. PDF dokumentu ofiziala izan behar da, jatorriko unibertsitatean lortutako kalifikazioak jasotzen dituen. Aplikazioan aurkeztutako ziurtagiri akademikoak kode elektronikorik ez badu, dokumentu originala aurkeztu beharko da Fakultateko Idazkaritzan, aldeztu aurretik hitzordua eskatuta (<https://www.ehu.eus/es/web/medikuntza-erizaintza-fakultatea/secretaria-cita-previa>).

UPV/EHUn ikasketak egin dituzten ikasleek ez dute dokumentazio hori sartu beharrik.

-Prozedura:

1. Bete ezazu eskabidea aplikazioan:
2. Deskargatu eta sinatu eskaera amaitzean sortzen den dokumentua.
3. Bidali sinatutako dokumentua zure ikasle.ehu posta-kontutik helbide honetara: tecnico.fme@ehu.eus

Ohar garrantzitsua:

Aurretik beste unibertsitate batean **AITORTUTAKO irakasgaiak** baliozkotzeko eskatzen denean, **gainditu den irakasgaiari buruzko datuak** adierazi beharko dira eskaeran: ikasketa planaren urtea; lortutako kalifikazioa; ECTS kredituen kopurua; titulazioa eta jatorriko unibertsitatea; eta irakasgaiaren programa xehatua. Hau da, zehatz-mehatz jaso beharko da jatorri unibertsitatean gainditu bai, baina ondoren aitortu ez den irakasgaiaren informazioa.